

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo kultura arloko kontseiluaren funtzionamendurako barne araudiaren aldatzeari

Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo Udalbatzaren 2024ko irailaren 26ko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo kultura arloko kontseiluaren funtzionamendurako barne araudiaren aldatzeari, eta haren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Aguraingo kultura arloko kontseiluaren funtzionamendurako barne arautegia

Izena eta xedea

1. artikulua

Arloko parte-hartze organoa da kultura arloko kontseilua, zeini gai horretan eskumena duten udal organoek kontsulta egingo baitiote, bai eta berak haiei aholku eman ere.

Hortaz, aginduzko txostenak egin ahal izango ditu, behar direnean, bai eta proposamen eta iradokizunak ere, bere eskumenaren arloko esparruan.

2. artikulua

Kultura kontseiluak herritarren parte-hartzea sustatuko du eta, bereziki, kulturaren arloko elkar-teena; hartara, herritarrek erantzukidetasun handiagoa izango dute udalerriko gai publikoetan.

Eginkizunak

3. artikulua

Hauek dira kultura arloko kontseiluaren eginkizunak:

- Aguraingo kultura bizitzaren norabidea zehaztea; eta, horretarako, estrategia egokiak sortzea.
- Aguraingo elkarteek modu koordinatuan jardungo dutela bermatzea; eta, horretarako, kultura agenda bakar eta eraginkorra sortzea, tresna nagusizat hartuta.
- Elkarteei buruzko informazioa partekatu eta sozializatzea, herritarrek elkarteei buruzko informazioa izan dezaten.
- Kultura ekitaldien berri ematea.
- Kultura dinamika berriak sor daitezen sustatzea.
- Aholkularitza eskaintzea udalari eta elkarteei.
- Kultura espazioak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.
- Kultura arloko proposamenak egitea kulturako jarduera eta programetarako; eta udalarekin lankidetzan aritzea, proposamen horiek abian jartzeko.

9. Eztabaidatu eta aztertzea udalak aurkeztuko eta kultura arloko kontseiluak aintzat hartu eta eskatuko dituen kultura gaiak, bereziki kultura arloko urteko programen gaineko informazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

10. Aurrekontuaren gauzatzeari buruzko informazioa jasotzea aldiaren behin, eta kultura sailko aurrekontu proiektua egiteko prozesuan parte hartzea.

Osaera

4. artikulua

Honako hauek osatuko dute kultur arloko kontseilua:

- Lehendakaria: Kultura zinegotzia edo hark eskuordetuko duen pertsona.
- Udalbatza osatzen duten talde politikoetatik ordezkari bana.
- Aguraingo Udaleko elkartearen erregistroan izena emana duten, sektorearekin zerikusia duten eta gaia interesatzen zaizen elkartearen ordezkariak.

Ordezkatuko dituen bozeramailea eta ordezkoa izendatuko ditu elkarte bakoitzak, eta idatziz emango dute horren berri idazkaritzan.

– Kontseiluaren xede arearekin lotura zuzena duten beste erakunde batzuetako ordezkariak, aldeztatik kontseiluko kide izateko nahia adierazi badute idatziz; horretarako izendatu dituzten bozeramailearen eta ordezkorearen izenak jakinarazi beharko dituzte.

– Orobat, kontseiluko kide izan ahalko dira, norberaren izenean, kontseiluaren berariazko sektorearen barruan izen handia duten pertsona eta adituak, kideen gehiengoak hala proposatzen duelarik, gai jakinen gainean aholku eman diezaioten kontseiluari; aldi batez jardungo dute halakoek kontseiluan, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

Kontseiluan parte hartuko dute, halaber, udal baliabideen teknikari arduradunek (liburutegi, musika eskola, jolastoki, gazteleku eta abarren arduradunek); hitza izango dute, baina botorik ez.

– Kultura arloko teknikari bat izango da kontseiluetako idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Kultura kontseiluaren bileretara elkarte bakoitzetik nahi duten beste lagun joan daitezke, eta hitz egiteko eskubidea izango dute. Dena den, bozeramaileak soilik —eta, hala dagokionean, ordezkoreak— izango du bozkatzeko eskubidea.

5. artikulua. Lehendakariaren funtzioak

1. Aguraingo kultur kontseiluaren ordezkari izatea.
2. Ohiko eta ez ohiko bileretarako dei egitea.
3. Udal teknikariak eta erakunde eta elkartearen ordezkariak gonbidatzea.
4. Bilera buru izatea eta horiek zuzentzea, eztabaidak antolatzea eta ordena egokia bermatzeko neurri egokiak hartzea.
5. Herritarren parte hartzea bermatzea.
6. Kontseiluaren ekimen eta proposamenak identitate kulturalaren batzorde informatiboari, eta hala badagokio udalbatzari, helaraztea, horiek bidera ditzaten.
7. Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

6. artikulua. Idazkariaren funtzioak

1. Aztertzen ari diren gaien legezko alderdiei buruz aholku ematea, laguntza juridiko egokiak baliatuta, behar izanez gero, beti ere, udaleko idazkariaren laguntzarekin.
2. Kontseilukideei proposatzea kontseilurako gai-zerrendarako gaiak.
3. Kontseiluko bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe. Bileretako akta-proposamenak egitea eta sinatzea.

- Akta guztiak kultura departamentuan gorde eta kontseiluko kideen esku izatea.
- Bileretarako deialdiak kontseilukideei bidaltzea, gai zerrenda eta azken bilerako aktarekin batera.
- Aguraingo kultur arloko kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.

7. artikulua. Aguraingo kultur arloko kontseilukideen eskubideak

- Aguraingo kultur arloko kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea, hitza eta boto eskubidearekin.
- Gai-ordenean jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan kontseiluak gehiago soiluz hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.
- Aguraingo kultur arloko kontseiluak hartutako erabakiak betetzearren garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.
- Aguraingo kultur arloko kontseiluko aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.

8. artikulua. Aguraingo kultur arloko kontseilukideen betebeharrak

- Aguraingo kultur arloko kontseiluko bileretan parte hartzea. Horrez gain, kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan parte hartze aktiboa izatea.
- Aguraingo kultur arloko kontseiluaren garapena eta sustapena hobetzeko laguntza ematea.
- Erreglamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.

Funtzionamendua

9. artikulua. Maiztasuna

Gutxienez hiru hilean behin bilduko da kontseilua, ohiko bilkuran. Hala ere, komeni bada edo premia badago, aparteko bilkurarik ere egin ahal izango da, eta lehendakariak egingo du deialdia, dela bere ekimenez, dela elkarteak ordezkatzan dituzten kontseilukideen gutxienez heren batek hala eskatzen diolako.

10. artikulua. Bertaratze quoruma

Bilkurak balio osoz egiteko bertan izan beharko dute lehendakariak eta idazkariak, bai eta, gutxienez, elkarteak ordezkatzan dituzten kontseilukideen erdiek ere, eta eutsi egin beharko zaio quorum horri bilkura osoan.

Quorum hori lortzen ez bada, bigarren deialdian eratuko da, ordu erdi geroago, eta aski izango da elkarteak ordezkatzan dituzten kontseilukideen herena bertan izatea, lehendakariak eta idazkariak gain.

11. artikulua. Deialdiak

Kontseiluaren lehendakariak bilkurarako deialdia egin aurretik, idazkariak komunikazio bat bidaliko du behin-behineko gai zerrendarekin, eta 10 egun naturaleko epea ezarriko da bertan, kontseiluko kideek gai zerrendarako proposamenak egiteko aukera izan dezaten, bai eta agiriak eta ekarpenak aurkezteko ere.

Gero, lehendakariak bilkuretarako deialdia egingo du. Aztertuko diren gaiak jasotzen dituen zerrenda bidaliko da deialdiarekin batera, bai eta beharrezko diren agiriak eta kontseiluko kideek gai horien inguruan egindako ekarpenak ere. Zortzi egun lehenago egingo da ohiko nahiz aparteko bilkuretarako deialdia. Presazko ezohiko bilkuretarako deialdiak egiteko ez da gutxienera aurrerapenik ezarriko.

Bilkuretako deialdiak euskaraz eta gaztelaniaz egin eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Kontseiluaren bilkuren datak argitaratuko dira, herritarrek eskaerak eta proposamenak egiteko aukera izan dezaten.

12. artikulua. Aktak

Kontseiluko idazkariak bilkura bakoitzaren akta egingo du, eta egingo den hurrengo bilkuran onetsiko da.

Bilkura guztien aktak bidaliko zaizkie kontseiluko kideei. Aktak publikoak izango dira, eta eskuragarri izango dituzte eskatzen dituztenek, gutxienez hamabost egun naturalez, bilkura egiten denetik aurrera.

Aktak udalaren webgunean eskuragarri izango dituzte herritarrek.

13. artikulua. Bozketa

Adostasuna bilatzea izango da ohiko lan sistema. Kasuren batean hori lortzea ezinezko bada, bozketa egingo da, eta bertan dauden eta botoa emateko eskubidea duten kideen gehiengo soilez hartuko dira erabaki eta ebazpenak. Berdinketa gertatuz gero, kontseiluko lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

14. artikulua. Lan taldeak

Kontseiluaren esparruarekin zerikusia duten gai puntual eta zehatzak aztertzeko berariazko lan batzordeak eratu ahal izango dira, dela kontseiluko lehendakariaren ekimenez, dela kontseiluko kideen gehiengoak hala eskatzen duelako. Kontseiluaren baitako elkarteen ordezkariak parte hartu ahal izango dute lantaldeetan, bai eta azertu beharreko gaietan aditu diren pertsonek ere, kontseiluko kideen gehiengoak hala proposatzen badu.

Lantaldeen bilkuren erregimena malgua izango da, gaiaren premiaren arabera. Lantaldeetarako deialdia egitea eta taldeak koordinatzea lehendakariari dagokio; hala ere, egoki irizten badio, idazkariaren gain utzi ahal izango du zeregin hori. Bertan direnen gehiengo soilez hartuko dituzte erabakiak lantaldeek, hasiera batean. Nolanahi ere, kontseiluari igorri beharko dizkiete ateratako ondorioak eta hartutako erabakiak, hark behin betiko onespena eman diezaien.

15. artikulua. Kontseiluaren irizpenak

Herritarrei kontsulta egiteko eta horien parte-hartzea bideratzeko leku den aldetik, kontseiluaren irizpenek garrantzi berezia izango dute, eta ildoak markatuko dituzte, udal gobernu organoentzat gomendio maila izango baitute; hain zuzen ere, erantzun arrazoitua eman beharko diete kontseiluak egindako gomendio guztiei, onartuko direnei edo aldatuko direnei. Kontseiluaren irizpen guztiei, bai eta horiek direla eta udal gobernu organoek ematen dituzten erantzunei ere, behar den zabalkundea eman beharko zaie, egindako lanari buruzko informazioa izan dezaten herritarrek.

Xedapen gehigarria

Udalbatzari dagokio araudi hau —osorik nahiz zati bat— aldatzea, bai eta deuseztatzea ere.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean jarriko da indarrean kultura kontseiluaren funtzio-namendurako barne arautegi hau.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. Artikuluan xedatzen duenarekin.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea izango da erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Horrez gainera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Agurain, 2024ko azaroaren 26a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR